

**2017KO MAIATZAREN 30EAN  
EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.**

**Bilera mota:** Udal Osoko Bilkura Arrunta

**Data:** 2017-05-30

**Ordua:** Arratsaldeko 19.30etan

**Lekua:** Udaletxeko Areto Nagusia

Honen bitartez eta alkatearen aginduz, aipaturiko ordu eta lekuan egingo den Ohiko Udal Osoko Bilkurarako deialdia luzatzen dizut.

Elduain, 2017ko maiatzaren 30a.

Idazkari-kontuhartzailea

**EGUNEKO GAI ZERRENDA**

**LEHENA.-** Aurreko Bilkuretako akten onarpen proposamena:

2016.10.25 Ohikoa

2017.05.03 Ezohikoa

**BIGARRENA.-** Alkatetzak emandako ebazpenen berri ematea.

2016KO EBAZPENAK	
2016/079	Urriko plenoa.
2016/080	Udaletxeko estalkia birgaitzeko obrak. Espedientearen hasiera.
2016/081	Udaletxeko estalkia birgaitzeko obrak. Gastuaren onarpena.
2016/082	Lursaila erabiltzeko baimena. PMS.
2016/083	Udaletxeko estalkia birgaitzeko obrak. Esleipena.
2016/084	Udaletxeko estalkia birgaitzeko obrak. Segurtasun koordinatzailea.
2016/085	Segregazio baimena. I.C.E.
2016/086	Diru-laguntza. Ibilaldiari ez.
2016/087	Leihoen aldaketa proiektua. Espedientearen hasiera.

2016/088	Leihoen aldaketa proiektua. Gastuaren onarpena.
2016/089	Leihoen aldaketa proiektua. Esleipena.
2016/090	Leihoen aldaketa proiektua. Segurtasun koordinatzailea.
2016/090	Leihoen aldaketa proiektua. Segurtasun planaren onarpena.
2016/091	Udaletxeko estalkia birgaitzeko obrak. Segurtasun plana.
2016/092	Gizarte Larrialdietarako Laguntza.
2016/093	Diru-laguntza. Kontseiluari ez.
2016/094	Banantzeko baimena. M.A.A.
2016/095	2017ko lan egutegiaren onarpena.
2016/096	2017ko egutegi fiskalaren onarpena.
2016/097	2016/01 kreditu aldaketaren hasierako onarpena.
<b>2017KO EBAZPENAK</b>	
2017/01	Obra baimena. Leihoak aldatzeko baimena P.I.I.
2017/02	Egurra ateratzeko baimena. J.A.Z.
2017/03	Egurra ateratzeko baimena. Inturiko Baso Elkartea.
2017/04	Diru-laguntza. Urdelar Biltokia.
2017/05	Erroldan alta eskaera. G.S.
2017/06	Erroldan alta eskaera. E.N.D.
2017/07	Egurra ateratzeko baimena. J.R.E.J.
2017/08	Idazkari oinarriak. 2017ko lehiaketa arrunta.
2017/09	Peñascal Kooperatiba. Hitzarmenaren luzapena.
2017/10	Diru-laguntza. Araba Euskaraz ez.
2017/11	Diru-laguntza. Euskal Eskola Publikoa ez.
2017/12	Diru-laguntza. Beñat Etxepare ez.
2017/13	Diru-laguntza. Nafarroa Oinez bai.
2017/14	Diru-laguntza. Kilometroak ez.
2017/15	Diru-laguntza. Herri Urrats bai.
2017/16	Diru-laguntza. Korrika ez.
2017/17	Giltzarria mozioaren onarpena.
2017/18	Diru-laguntza. T3T bai.
2017/19	Diru-laguntza. HIGE ez.
2017/20	Diru-laguntza. Bikarte ez.
2017/21	Diru-laguntza. Behatokia ez.
2017/22	Diru-laguntza. J.E.G.
2017/23	Egurra ateratzeko baimena. Orantzun basoak.
2017/24	Egurra ateratzeko baimena. J.O.M.

2017/25	Aurrekontuaren likidazioaren onarpena.
2017/26	Diru-laguntza. Urdelar Biltokiaren gastuen justifikazioaren onarpena.
2017/27	Kontratazio zentrala. Bulego materiala.
2017/28	Idazkari oinarriak. 2017ko lehiaketa arrunta. Hutsik.
2017/29	Gizarte larrialdietarako laguntza.
2017/30	Gizarte larrialdietarako laguntza.
2017/31	Gizarte larrialdietarako laguntza.
2017/32	Maiatzeko ezohiko plenoa.
2017/33	Obra baimena. Oilategi eraikitzeko obra baimena E.I.A.
2017/34	Obra baimena. Iberdrola. Leizarango zentral hidroelektrikoko kanala berritzeko baimena.
2017/35	Diru-laguntza. Gizakia helburu ez.
2017/36	2017-KALD-000001-00 Kreditu aldaketaren hasierako onarpena.
2017/37	2017-KALD-000001-00 Kreditu txertaketaren hasierako onarpena.

**HIRUGARRENA.-** 2017ko udal aurrekontuaren 2017-KALD-000001-00 kreditu aldaketa espedientea onartzeko proposamena.

**LAUGARRENA.-** Gipuzkoako Ur kontsortzioaren estatutuen aldaketa onartzeko proposamena.

**BOSGARRENA.-** Erregu eta galderak.

**2017ko MAIATZAREN 30eko  
UDAL OSOKO OHIKO BILKURA**

Elduain, Udaletxeko bilera aretoan, aurrez egindako deiara, 2017ko maiatzaren 30ean, arratsaldeko zazpi t'erdietan, Udalaren Batzar osoa biltzen da ohiko saioan, behean aipatzen

diren zinegotziak, Jose Angel Urkizu Odriozola Alkatearen presidentziapen.

Zinegotziak:

- Juan Ramon Gurrutxaga Lasa (19.30)
- Goreti Soroa Martinez (19.30)
- Miren Amaia Askasibar Agirre (19.30)

Ez da batzarreratu Maite Bizkarrondo Arzallus zinegotzia.

Bertan dago eta fede ematen du Udaleko idazkari kontu-hartzaileak:

- Maria Pilar Garmendia Miguel

Osoko Bilkura legez osatzeko behar adinako kopuruak parte hartzen duela egiaztatu ondoren, presidenteak, 19:30 ordu direnean, bilkura irekitzat ematen du eta gai-zerrendako puntuen azterketari ekiten da.

#### **LEHENENGO PUNTUA:**

##### **UDAL BATZARREN AKTAK ONARTZEKO PROPOSAMENA**

Alkateak galdetzen du korporazioko kideren batek baduen esango den aktan inolako oharrik aurkezteko asmorik. Zinegotzi guztiei alde zuzenetik helarazi zaizkie akta minutak.

- 2016.10.25 Ohikoa
- 2017.05.03 Ezohikoa
- 

Ez da inongo zuzenketa eskaririk egiten, ondorioz aurkeztua izan diren era berean onartua gertatzen dira.

#### **BIGARREN PUNTUA:**

##### **ALKATETZAK EMANDAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.**

Azaroaren 28ko 2568/1986, Erret Dekretuaren (ROF) 42. artikuluan xedatutakoarekin bat, Korporazio honen azken ohiko batzarretik gaurdaino eman diren Alkatezaren Ebazpenen berri ematen da, hain zuzen ere 079/2016tik 037/2017 dekretura doazenak, biak barne, honetaz guztiaz Udalbatza jakinean geratzen delarik.-

<b>2016KO EBAZPENAK</b>	
2016/079	Urriko plenoa.
2016/080	Udaletxeko estalkia birgaitzeko obrak. Espedientearen hasiera.
2016/081	Udaletxeko estalkia birgaitzeko obrak. Gastuaren onarpena.
2016/082	Lursaila erabiltzeko baimena P.M.S.
2016/083	Udaletxeko estalkia birgaitzeko obrak. Esleipena.
2016/084	Udaletxeko estalkia birgaitzeko obrak. Segurtasun koordinatzailea.
2016/085	Segregazio baimena I.C.E.
2016/086	Diru-laguntza. Ibilaldiari ez.
2016/087	Leihoen aldaketa proiektua. Espedientearen hasiera.
2016/088	Leihoen aldaketa proiektua. Gastuaren onarpena.
2016/089	Leihoen aldaketa proiektua. Esleipena.
2016/090	Leihoen aldaketa proiektua. Segurtasun koordinatzailea.
2016/090	Leihoen aldaketa proiektua. Segurtasun planaren onarpena.
2016/091	Udaletxeko estalkia birgaitzeko obrak. Segurtasun plana.
2016/092	Gizarte Larrialdietarako Laguntza.
2016/093	Diru-laguntza. Kontseiluari ez.
2016/094	Banantzeko baimena M.A.A.
2016/095	2017ko lan egutegiaren onarpena.
2016/096	2017ko egutegi fiskalaren onarpena.
2016/097	2016/01 kreditu aldaketaren hasierako onarpena.
<b>2017KO EBAZPENAK</b>	
2017/01	Obra baimena. Peio Arretxe. Leihoak aldatzeko baimena.
2017/02	Egurra ateratzeko baimena J.A.Z.
2017/03	Egurra ateratzeko baimena. Inturiko Baso Elkartea.
2017/04	Diru-laguntza. Urdelar Biltokia.
2017/05	Erroldan alta eskaera. G.S.
2017/06	Erroldan alta eskaera. E.N.D.
2017/07	Egurra ateratzeko baimena J.R.E.J.
2017/08	Idazkari oinarriak. 2017ko lehiaketa arrunta.
2017/09	Peñascal Kooperatiba. Hitzarmenaren luzapena.
2017/10	Diru-laguntza. Araba Euskaraz ez.
2017/11	Diru-laguntza. Euskal Eskola Publikoa ez.
2017/12	Diru-laguntza. Beñat Etxepare ez.
2017/13	Diru-laguntza. Nafarroa Oinez bai.
2017/14	Diru-laguntza. Kilometroak ez.

2017/15	Diru-laguntza. Herri Urrats bai.
2017/16	Diru-laguntza. Korrika ez.
2017/17	Giltzarria mozioaren onarpena.
2017/18	Diru-laguntza. T3T bai.
2017/19	Diru-laguntza. HIGE ez.
2017/20	Diru-laguntza. Bikarte ez.
2017/21	Diru-laguntza. Behatokia ez.
2017/22	Diru-laguntza J.E.G.
2017/23	Egurra ateratzeko baimena. Orantzun basoak.
2017/24	Egurra ateratzeko baimena J.O.M.
2017/25	Aurrekontuaren likidazioaren onarpena.
2017/26	Diru-laguntza. Urdelar Biltokiaren gastuen justifikazioaren onarpena.
2017/27	Kontratazio zentrala. Bulego materiala.
2017/28	Idazkari oinarriak. 2017ko lehiaketa arrunta. Hutsik.
2017/29	Gizarte larrialdietarako laguntza.
2017/30	Gizarte larrialdietarako laguntza.
2017/31	Gizarte larrialdietarako laguntza.
2017/32	Maiatzeko ezohiko plenoa.
2017/33	Obra baimena. Oilategi eraikitze obra baimena E.I.A.
2017/34	Obra baimena. Iberdrola. Leizarango zentral hidroelektrikoko kanala berritzeko baimena.
2017/35	Diru-laguntza. Gizakia helburu ez.
2017/36	2017-KALD-000001-00 Kreditu aldaketaren hasierako onarpena.
2017/37	2017-KALD-000001-00 Kreditu txertaketaren hasierako onarpena.

**HIRUGARREN PUNTUA:**

**2017KO UDAL AURREKONTUAREN 2017-KALD-000001-00 KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA ONARTZEKO PROPOSAMENA.-**

Alkatetzak agindurikoa betez Idazkaritza-Kontuhartzaitzak aurtengo udal aurrekontuari dagokion kreditu aldaketa 01/2017 espedientea osatu du eta berau ikusi da.-

Kontuan harturik espediente honetan barneraturiko Alkatetzaren Memoriak diona, non agerian jartzen da, funtsean, espediente honek honako beharrei erantzuten diela:

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
1	PERTSONAL GASTUAK	22.800,00



6	INBERTSIO ERREALAK	27.200,00
<b>KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA</b>		<b>50.000,00</b>

**FINANTZAKETA**

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
5 (SARRERAK)	ONDARE SARRERAK	50.000,00
<b>GUZTIRA</b>		<b>50.000,00</b>

Eta gertatutako emaitzaren arabera, **ERABAKI DA:**

**LEHENA:**

2017ko Udal Aurrekontuaren Kreditu Aldaketa 01/2017 kreditu aldaketa proposamena hasierako izaeraz onartzea.

**BIGARRENA:**

Kreditu aldaketa hau arauzko eran jendaurreko erakustaldian jartzea.

**LAUGARREN PUNTUA:**

**GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAREN ESTATUTUEN ALDAKETA ONARTZEKO PROPOSAMENA.**

Deialdiarekin batera Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren estatutuen aldaketa egin beharri buruzko informazioa banatu zaie zinegotziei.

Zehazki Kontsortzioaren helburuak jasotzen dituen 3. Artikulua aldatu nahi da 40/2015 Legeak 120. artikuluan eta 6/2007 FORU ARAUA, apirilaren 10ekoa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalez gaindiko erakundeak arautzen dituenak 11. Artikuluan xedatutakoa betez.

Eta besterik gabe bozketa egin da.

Bozketako emaitzaren arabera, **ERABAKI DA:**

**LEHENA:** Apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 47.2 g) artikuluan galdatutako gehiengoarekin onartzen da Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren Estatutuen 3. Artikuluko idazkera berria. Hain zuzen, 3. Artikulua honela idatzita geratuko da:

**BIGARRENA:** Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, 44 eta 49 artikuluetan, 781/1986 Errege Dekretu Legegileak 35 artikuluan eta 6/2007 FORU ARAUA, apirilaren 10ekoa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalez gaindiko erakundeak arautzen dituenak 11. artikuluan agintzen dena betetzeko, hartutako erabakiaren berri ematen da: Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarkiaren bidez eta

udaletxeko oholean plazaratzen den iragarki bidez, honela bada espedientea jendaurreko erakustaldian jartzen da, jarraiko araei jarraiki:

Dokumentuak ikusgai daude: Udal honetako Idazkaritza-Kontuhartzaitetzan.

Aztartzeko eta kasua balitz, erreklamazioak egiteko epea: 30 lanegun, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo lanegunetik kontatzen hasitakoa, bulego ordutegian.

Erreklamazioa egiteko gaitasuna dute: 39/2015 Legeak 4. Artikuluan interesdun bezalako jasotzen dituen norbanako zein taldeek.

Aurkezteko tokia: udalaren sarrera erregistroan.

Nori zuzendu erreklamazioa: Udal Batzarra.

**HIRUGARRENA:** Erakustaldiaren epea inolako erreklamazio edo oharpenik aurkeztu gabe igaroko balitz, hartutako erabakiak behin-betirako onartutzat hartuko dira. Erreklamaziorik aurkeztu gero, Udalbatzarrak ebatziko ditu.

**LAUGARRENA:** Gaia behin betiko onartuta geratzen denean, horren berri emango zaio Gipuzkoako Ur Kontsortzioari bere jakinerako eta egokiak diren ondorioetarako.

### **BOSGARREN PUNTUA** **ERREGU ETA GALDERAK.-**

Puntu honetan, lehendakaritzak bertaratutakoei luzapena egiten die interesgarriak deritzotzen galde-eskeak egin ditzaten.

Ez da inongo erregu edo galderarik aurkezten.

Eta, 21.10 ordu direnean, lehendakariak batzarra amaitutzat jo zuen, eta gertatuakoaren berri agerian gera dadin akta hau prestatu eta sinatzen dut.

Elduain, 2017ko maiatzaren 30a.

O.e.  
Alkateak

Idazkari-Kontuhartzaileak,

Jose Angel Urkizu Odriozola,

Maria Pilar Garmendia Miguel,





**ELDUAINGO UDALA**  
**Udaletxea 1**  
**20.493 Elduain**  
**(Gipuzkoa)**

**EUSKAL HERRIA**  
**BASQUE COUNTRY**

